

etxerat

euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak

familiares y amigos de presos y exiliados políticos vascos • parents et amis de prisonniers et réfugiés politiques basques



Hilabetekaria
2015 ekaina

Ekaina • Kronika

Egun argitsua izan zen Lasterbidean 2015, baina beltzagoa hurrengo eguna. Minbizi bat sendatzeko trantzea den ebakuntza zaildu zioten Gorka Fraile euskal preso politikoari lau poliziek, tratu txar psikologiko giro bat sortuz. Uneoro presoan trasladoak biltzen dituen obskurantismo horrekin gogaituta gaude. Gogaituta gure senideak ospitale publikoetan ere ikusteko trabekin. Gehiegikeria hauek salatu genituen prentsaurrekoan bezala, urraketarako joera diren garraioetan konfiantzazko mediku eta abokatuaren zaintza exijitzen dugu beste behin.

Ebakuntza ondo atera zen osasun arloko hainbat profesional, senide, eta herri mailako elkartasun kolektiboren inplikazioari esker. Horrek, ebakuntza osteko baldintzen hobekuntza ekarri zuen, une zail horiek eramangarriagoak eginez, zenbaki honetan gehitu dugun gutunean Gorkak berak azaltzen duen moduan.

Haatik, ez ditugu ehundaka kilometro egiten jarraitu nahi eta zoriak gure heriotzarekin jolasten jarraitzea nahi. Eta dispertsio politika euskal preso politikoen senide eta lagunoi heriotzarako boleto asko ematen dizkigun joku beltz eta makabroa da. Horren erakusgarri,

ekainean izan da dispertsioak eragindako bostgarren istripua. Zorionez, kalte materialak baino ez ziren izan.

Hil honetan ere, bakoitzaren nahieran egin eta desegitearen beste adibide larri bat bizi izan dugu. Bisitak egitea erraza ez balitz, bat gutxiagorekin egon dira hil honetan Fleury Merògis-eko euskal preso politiko eta kortsikarrak. Azalpenik gabeko aldaketa honen aurrean eta aurretik beste ekintza batzuk egin eta erantzunik lortu gabe, gose greba mugagabea jartzera behartuak ikusi zuten euren buruak. Beste behin, borrokaren bitartez, astebetean lehengo bisiten berrezartzea lortu zuten. Zenbat aldiz eta zenbateraino jarri behar izango dute osasuna jokoan gure senide eta lagunek erabaki arbitrario bat dela-eta bereak diren eskubide batzuegatik?

Ildo horretan ospatu berri den Euskal Herriko Pakearen aldeko Parisko Konferentziak nabarmendu duen bezala Etxerat eta euskal preso politikoen kontrako jazarpena gelditu behar da. Eta jazarpen horretan, errepresaliatuen eskubideen alde lan egiten duten eragileak dira jomuga. Sare izan da oraingoan helburu. Beldurra sortzea baino ez duten kriminalizazioen gaitetik, gurekin jai dutela erakutsiko diegu berriz ere.



435 euskal preso politiko

● 430 euskal preso politiko daude 76 espetxetan sakabanatuta

- **330** euskal preso politiko, espainiar estatuko **45** espetxetan sakabanatuta.
- **91** euskal preso politiko, frantziar estatuko **26** espetxetan sakabanatuta.
- **6** euskal preso politiko, Euskal Herriko **3** espetxetan.
- **1** Portugalen preso.
- **1** Ingalaterran etxean preso.
- **1** Alemanian preso.
- **1** Mexikon preso.
- **4 euskal preso politiko daude gaixo larri espetxe arinduan.**

Euskal Herritik zenbat kilometrora?

- **59** euskal preso politiko Euskal Herritik **1.000-1.100** kilometrora.
- **113** euskal preso politiko Euskal Herritik **990-800** kilometro bitartean.
- **164** euskal preso politiko Euskal Herritik **790-500** kilometro bitartean.
- **24** euskal preso politiko Euskal Herritik **490-400** kilometro bitartean.
- **61** euskal preso politiko Euskal Herritik **400** kilometro baino gutxiagora.
- **4** euskal preso politiko Portugalen, Alemanian, Ingalaterran eta Mexikon.
- Adin txikiko **8** ume, **3** urte beherakoak, amekin Euskal Herritik **500** eta **540** kilometro bitartean dauden bi espetxetan sakabanatuta.



Askatasunak / En libertad / Libérations

Nor	Noiz	Nondik
Quien / Qui	Cuando / Quand	De / De
Geresta Azurmendi , Ander (Zizurkil)	2015/06/6	Monterroxo
Cabello Perez Andoni (Belauntza)	2015/06/18	Castello I
Gutierrez Elorduy , Borja (Berango)	2015/06/26	Osny

Leku aldaketak / Cambio de destino / Transferts

Nor	Nondik	Nora
Quien / Qui	de / de	a / à
Eskisabel Urtuzaga, Peio (Lasarte)	Clairveaux	Reau sud Francilene
Etxaburu Artetxe, Aitzol (Ondarru)	Fleury Merogis	Clairveaux
Lauzirika Oribe, Karmelo (Bilbo)	Castello I	Puerto I
Barandalla Goñi, Ohian (Arbizu)	Nanterre	Fresnes
Sancho Marco, Iñigo (Bilbo)	Osny	Reau sud Francilene
Solana Matarran, Jon Igor (Bilbo)	Córdoba	Sevilla II
Aspiazu Rubina, Garikoitz (Bilbo)	Estremera	Arles
Zaldibar Alvarado, Aiala	Zaballa	Curtis
Majarenas Ibarreta Sara eta bere umea Izar (Donostia)	Aranjuezeko amen modulotik	Valencia II espetxeko amen modulora
Codó Callejo, Jagoba (Donostia)	Martutene	Castello II
Mujika Andonegi Ander (Donostia)	Beziers	Saint Martin de Re
Enparantza Agirre, Jon (Donostia)	Segovia	Alcala-Meco
Sagastizabal Emilio Yus, Marina (Gasteiz)	Zaballa	Villabona
Urrutia Gonzalez, Oier (Gasteiz)	Burgos	Daroca
Villaverde Barrutiabengoa, Ainhoa (Gasteiz)	Zaballa	Mansilla

Osasun eskubidea

Minbiziagatik ebakuntza izan aurretik tratu ankerra jaso du Gorka Fraile euskal preso politikoak poliziaren aldetik

Gorka Fraile Durangoko euskal preso politikoak mingaineko tumorea kentzeko ebakuntza izan zuen Badajozeko ospitalean ekainaren 9an. Esposatuta izan zuten logelan eta preso bere onetik ateratzeko asmoz, uneoro iskanbila sortzen aritu ziren zaintzen zuten lau poliziek; sendiari bisita oztopatu zioten ere.

Gorka Fraile euskal preso politikoak tratu anker eta oldarkorra jaso zuen Badajozeko ospitaleko logela batean uneoro zainduta zuten lau polizien aldetik. Ebakuntza bat jaso aurretik beharko lukeen lasaitasun tratua aurka, eskuburdirak jarrita izan zituen Frailek kartzelatik ospitalera bidean 07:30etan ateratu zutenetik (gauean zehar ere), eta zalapartaka aritu zitzaizkion etengabe poliziak egun guztian zehar: mobilaren bidez musika eta bideoak bolumen handian jarritz, paretaren kontra kolpeak emanaz eta logelan zegoen edozer iskanbila sortzeko baliatuz. Altzari pieza bat puskatzera heldu ziren ere.


Tratua argi eta garbi ankerra izan zen: lasaitasuna lortzen zuela ikusten zuten unean asaldatzeari ekiten zioten poliziek. Tratu krudel horrek zuzenean eragin zion Fraileari. Hainbeste, sendiak hura ikustea lortu zuenean egoera oso urdurian topatu zuela Fraile, ebakuntza baztertzeko aukera planteatzeraino, kartzelara berriz eraman zezatela eskatuz.


Oztopoak bisitak egiteko

Horrez gain, sendiak Fraile ikusteko oztopoak jarri zituzten, eta preso ikustea galarazten saiatu ziren. Abokatuak azaldu zenez, Frailearekin lau orduz (16:00etatik 20:00etara) egoteko aukera izan zezaketen, hori baita preso sozialek izaten duten denbora, baina preso politikoak izanda polizia buruaren esku izango zela ohartarazi zien.

Hala, hasiera batean 18:00etatik 20:00etara eman bazieten, gerora poliziek ekidin egin zuten hori: presoarekin egoteko 30 minutu soilik uzteko agindua zutela esan zioten familiari. Hori dela-eta 10 minutuko tartetean sartu ziren hiru famili-kideak. Horrez gain, ebakuntza-gelako itzarongelan egoteko eskubidea ere ukatu zioten sendiari goizean.

Presoa kartzelatik ateratzen den une beretik ospitaleratzea eta prozesu osoa irauten duen bitartean, konfiantzazko mediku eta abokatuaren kustodia exijitzen dugu





Euskal Herriko mediku ezberdinek Badajozeko ospitalera deitu eta egoera aldatzea lortu zuten, eta bi famili-kidek sartzea lortu zuten. Goizeko 08:30etan hasi zitzaizkion Fraileri ebakuntza egiten eta lau poliziak ere berarekin sartu ziren ebakuntza-gelara Fraile «zaintzeko». Giza eskubideen aurka doan tratu nardagarri eta bihozgabea dela-eta, Etxerat Elkarteak prentsaurrekoa eskaini zuen Durangon. Bertan, Etxerateko kide bat, Gorka Fraileren famili kide bat eta mediku bat izan ziren. Salatu zuten bezala gertatutakoa giza eskubideen urraketa da are gaixotasun larri batez joa den preso baten kasuan. «Tratu krudel eta onartezina inorentzat, are preso gaixo batez ari garenean».

Tratu txar psikologikoa

Dispersio politikak sufrimendua handitzen du edozein egoeraren aurrean, zaugarriak diren egoeretan batez ere. Osasun eskubidea urratzen du, konfiantzazko medikuek ezin artaturik. Tratu duinerako eskubidea urratzen du, polizien jarrera oldarkorrez eta ospitalearen pasibotasunaz.

Espetxe politikaren oinarrian dago sufrimenduaren areagotzea, presoaz gain bere senitarteko eta ahaideei ere eragiten diona. Tratu txar psikologikoaren oinarriak ezartzen ditu Gorkak sufritutakoak. Adierazgarria da zentzu horretan, Gorkak berebizikoa zen ebakuntza bertan behera uzteko hasierako nahia, etsipenaren menpe. Eta zera galdegin behar dugu ere: Non daude bermeak lekualdatze eta zainketetan? Non dago ospitaleko ardura? Non daude haien gaixoen onerako dena eta ez dena erabakitzeko eskumen, ardura eta obligazio osoa duten medikuen kontzientzia? Beste behin ebidentzian geratu dira. Ebidentzian, egungo espetxe legeriak presoak eta euren ingurua zigortzeko helburua duelako. Gure senideen izaera politikoa ukatuz, mendekuan oinarritutako neurri eta tratu berezituak aplikatzen dizkietelako.

**Gorka
Fraile preso
politikoa
Badajozeko
espetxean
dago, Euskal
Herriko 750
kilometrotara**

Horrelakorik berriro gerta ez dadin bermatzeko, presoak kartzelatik ateratzen den une beretik ospitaleratzea eta prozesu osoa irauten duen bitartean konfiantzazko mediku eta abokatuaren kustodia exijitzen dugu. Urteetan, bi estatuk eta hedabide batzuek hedatutako mendeku politika eta gorroto sentimenduetan adoktrinaturako pertsonez babestu ahal izateko.



Espetxeak

Euskal preso politiko eta kortsikarren gose greba Fleury

Gose greba abiatu behar izan zuten Fleury Merògis kartzelako euskal preso politiko eta kortsikarrek bisiten murrizketagatik. Astebetera zuzendaritzarekin akordiora iritsita, uztailetik aurrera lehengo bisita kopurua berrezarriko zaie, hots, hiru bisita luze.

Fleury Merògiseko euskal preso politiko eta korsikarrek gose greba (2. eta 3. dibisioetan) eta patioan blokeo bidezko protestak (1. dibisioan) abiatu zituzten ekainaren 15etik 19ra espetxeko zuzendaritzak modu bidegabean bisitak murriztu eta hilabeteko bi bisita bakarrik ezarri zituelako. Presoek jakinarazi zutenenez, bilera izan zuten D2ko (bigarren dibisioa) euskal preso politikoek eta kortsikarrek Fleuryko zuzendari, D2ko buru eta parloir buruarekin (bisiten arduraduna). Idatziz konfirmatu behar den akordioaren zain, hitzezko hitzarmen batera heldu dira kartzela eta presoak. Honen bidez, murriztu zitzairen bisita luzea berreskuratu eta uztailetik aurrera lehengo bisiten kopurua izango dute berriz: hiru bisita luze hilean (bi astean metatzeko aukerarekin) eta hiru labur.

Hiru urteren buruan erdira murriztu dizkiete bisitak euskal errepresaliatuei, lautik bira. Gose greba abiatu zuten euskal preso politiko eta korsikarren izenean, Ibon Goieaskoetxeak eta Joseba Iturbidek gutuna idatzi zioten joan den maiatzaren 30ean Fleury Merògis presondegiko zuzendariari, «inolako abisurik» gabe gauzatu zen bapateko aldaketa hau salatuz. Aldaketarik egon ezean, abiatu zuten hasierako janariaren errefuxa utzi eta protesta modu bakezale «erradikalagoak» hartuko zituztela ohartaraziz.

***Fleury
dagoen preso
kopurua jeitsi
da, beraz
bisitak
murriztea
erabaki
bidegabean
eta «zigor
larria» bezala
uler daiteke
soilik***

Eskutitzak erantzunik izan ez zuenez, errefuxa gose greba bilakatzea erabaki zuten, eta bigarren eta hirugarren dibisioetan aritu ziren aurrera eramaten protesta. Horrez gain, patioetan planteak egin zituzten, hots, ziegetara itzultzera ukatu. Beraiekin, gose grebara batu ziren preso kortsikarrak.

Astean behin bisita luze bat izateko -Frantziako gainontzeko kartzeleetan ohikoa-, duela urte batzuk izandako borroka ekarri zutengogora Goieaskoetxeak eta Iturbidek aipatu gutunean Horren bidez, hilean lau bisita luze -astean bi bisita pilatzeko aukerarekin- izateko eskubidea erdietsi



zuten. Ondoren, kartzelako obra batzuk zirela eta, eta «leku falta» zegoela argudiatuta, hiru bisitara murriztu zituen Fleuryk bisitak, asteburuetakoak mugatuz. Lanak bukatutakoan aurreko egoerara bueltatuko zirela hitz eman zieten presoek aldeztasunarekin.

Espetxeak hitza jan zuen

Baldintza horrekin onartu zuten presoek aldaketa akordioa, euren «borondate ona» erakutsiz, muga material horiek benetakoak ez zirela bazekiten arren. Obrak amaitutakoan kartzelak ez zuen hitza bete, eta euskal preso politiko eta korsikarrek hilean hiru bisita luze izateko akordioarekin (bi asteburuetan eta bat astean zehar) geratu behar izan ziren.

Orain, bisitak izateko instalazioen gaitasunak hobetu direnean eta Fleuryko preso politikoaren kopuruak behera egin duenean, maiatzeko bapateko murrizketa horrekin «larriki zigortuak» ikusi zuten euren burua, kontatzen dute Goeiaskoetxeak eta Iturbidek. Denbora honetan zehar jasan duten «suntsitze arbitrarioak» arrazoirik ez dagoela gaineratzen dute, nahiz eta orduan espetxeak haiekiko izan zuen «muzin» egiteko jarrerak, bertan dauden euskal preso politiko eta korsikarrei nahita egindako eraso bat dela baieztatu zien: «Badakigu jazarpen politikoan oinarritzen den eta gure kondenari ezartzen diozuen familien urrutze politikaren ondorio gehitu bati erantzuten diola honek», idatzi zioten zuzendaritzari.

***Fleuryn
dagoen preso
kopurua jeitsi
da, beraz
bisitak
murriztea
erabaki
bidegabea
eta «zigor
larria» bezala
uler daiteke***

Amaitzeko, erabaki honek Korsika eta Euskal Herriko politikariek, nazioarteak eta preso politikoek eurek ere gatazkaren behin betiko konponketaren bidean eramaten ari diren dinamiken aurka zuzen doazela gaineratzen dute gutunean: «Kartzelak gure aurkako, gure senide eta gure herrialdeetako bake prozesuen aurkako ondorio larriak dituen arduragabekeria erakusten du». Bestalde, dispartzioa salatzeaz gain, Korsikako preso politikoaren egoerari elkartasuna adierazten diote, Fleuryra 1.200 kilometrotik gorako distantzia dutela gogoratuz.

Ettxerat elkarteak elkartasuna eta bermea adierazi die erabaki hau hartzera derrigortuak izan diren euskal preso politiko eta korsikarrei. Halaber, kartzelako zuzendaritzara zuzendu da salbuespenezko neurriak muturrera eramateagatik ezaguna den presondegi horretako egoera aldatzeko pausoak har ditzan, datozen hilabeteetan berriz errepikatu daitekeen egoera bat izan daitekeelako hil honetan bizi izan duguna.



Espetxeak

Andrej Hunkok Tomas Elgorriaga Kunze euskal preso politikoa bisitatu du Mannheimeko kartzelan

Andrej Hunko, Bundestageko EBri buruzko komisioko kidea eta Europako Kontseiluko Asanblada Parlamentariko (PACE) kideak ekainan, duela 8 hilabete euroagindu baten ondorioz Mannheimeko kartzelan atxiloturik dagoen Tomas Elgorriaga bisitatu du.

Andrej Hunkok aspalditik Euskal Herrian bizi den bake prozesuaren jarraipena egiten ari da. Horrela, duela urte batzuk oraindik kartzelan dagoen Arnaldo Otegi bisitatu zuen. Hau lortu duen espainiar nazionalitaterik ez duen parlamentari bakarra izan da. Batasunako bozeramaile ohiak euskal bake prozesuaren bultzatzaile nagusienetarikotzat har daiteke.

Elgorriaga Kunze lan politikoa egiten zuen Euskal Herrian eta 90 hamarkadaren bukaeran ihes egin zuen Alemaniara torturaren beldur. 2014ko urrian Mannheimen atxilotua izan zen. Ordura arte izen faltsuarekin Freiburgen bizi izan zen, eta bertan ikasketak burutu zein unibertsitatean ikerketa akademikoan lanetan aritu izan zen. Espainiako CNI zerbitzu sekretuek, Hesseneko LKA(Landes Kriminal Amt)ri emandako informazioen ondorioz, Krimenaren kontrako Unitate Berezi Federalek atxiloketa gauzatu zuten.

Frantziak bere estradizioa eskatu du euskal mugimendu independentistari ustez laguntza emategatik eta Alemaniak bere kontrako prozesu bat ireki du 129a eta 129b Paragrafoak oinarri harturik.

**Tomas
Elgorriaga
Kunze
Alemaniako
Mannheim
espetxean
dago, Euskal
Herriatik
1.430
kilometrora**



Salbuespenezko neurriak

Xanti Arrozpide preso politikoak 17 urteko kondena berria jaso du

Arrozpideren 17 urteko kondena berri hau aurrekoei gehitzen bazaie ere, euskal preso politikoak mendekuaren etengabeko garaikur mediatiko bezala erabiltzea baino ez du bilatzen, gure senideak uneoro ezinegonean izatea.

Espainiako Audientzia Nazionalak Xanti Arrozpide euskal preso politikoa 17 urtera zigortu zuen ekainaren hasieran. Arrozpidek jasotako kondena berri honek kartzelako egonaldia luzatuko ez badio ere, ebazpen honek eta abenduko bere kaleratzearen osteko ehiza kanpainak Espainiar estatuaren aparatu juridikoaren mendekuaren parafernalia hutsari baino ez diola erantzuten badakigu. Horren atzean euskal preso politikoak mendekuaren garaikur bezala erabiltzeko nahia dago, iritzi publikoa irabazle eta galtzaileen diskurtso irreal eta zaharkitu (hasieratik) horretan murgiltzeko, eta bide batez, senideak ezinegonean biziarazteko.

***Epaia
Espainiar
estatuaren
aparatu
juridikoaren
mendekuaren
parafernalia
hutsari baino
ez dio
erantzuten***

Aldez aurretik esan behar dugu ez dutela lortuko. Aurtengo Nazio Batzarrean aipatu genuen bezala, «senideek duten ezaugarria nagusia duintasuna da, harro gaude senide izateaz». Haatik, bere askatasuna lortu zuenetik Arrozpidek jasan duen ehiza kanpaina mediatikoa salatzeko baliatu nahi dugu. Abenduaren 4ean kalea zapaldu eta handik 45 egun eskasera atxilotua izan zen kartzelan 27 urte eman eta gero, Auzitegi Gorenak Europako kondenen batuketa akordioa atzera bota eta gero. Bere momentuan salatu genuenean bezala, erabaki horrek gehiago du tranpa hutsetik trikimailu legaletik baino, bere askapenak suposatu zuen erretxinari erantzuten diolako soilik.



Istripuak

Gotzon Amaro euskal preso politikoaren lagun batek istripua izan du Valladolidera bidean

Gotzon Amaro euskal preso politikoaren lagun batek istripua izan zuen Amaro Valladolideko kartzelara bisitatzerantz zihoala. Kalte materialak baino ez ziren izan baina kotxea dagoeneko ez dago erabilgarri. Dispersioak eragindako urteko bostgarren istripua da.

Valladolidera Gotzon Amaro euskal preso politikoa bisitatzerantz zihoan lagun batek auto istripua izan zuen ekainaren 13ko eguerdian Palentzian. Kamioi bat aurreratzera joan zenean kotxearen kontrola galdu eta medianaren kontra egin zuen. Zorionez, kalte materialak baino ez ziren izan baina kotxea garabiak eraman behar izan zuen. Seguruak beste auto bat utzi zion eta preso politikoa ikusteko bisita ez zuen galdu. Amarok zazpi urte daramatza preso eta 2016ko irailean du irteera data.



Dispersioak eragindako urteko bostgarren istripua da. Gogaituak gaude dispersioa deituriko errusiar erruleta honetaz, astebururo telefono dei batean aurrean bihotza ukabil batean sartzerantz garamatzana.



Nazioarte

Parisko Bake Konferentziak salbuespenezko egoerarekin bukatu nahi duen gizartea dagoela erakutsi du

Parisko Bake Konferentzia ekainaren 11an ospatu zen. Frantziako Asanblada Nazionaleko Victor Hugo aretoan hainbat ekitaldi egin ziren euskal gatazka aztertu eta konponbide prozesuan pausuak emateko beharra azpimarratzeko.

Parisko Bake Konferentzia, konponbide prozesuaren azken lau urteetako egoera aurkezteko eta gatazkaren ondorioez aritzeko unea izan zen. Zehatzago, biktimen eta presoengain ingurukoa. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Parisko Konferentzia Aieteko Nazioarteko Konferentziaren eta Baionako Adierazpenaren jarraipenean kokatzen da.

Bake Bidean elkarrekin izan zen konferentziaren antolatzailea, baina Frantziako eta nazioarte mailako erakunde garrantzitsuak izan ditu laguntzaile zeregin horretan, besteak beste, Frantziako Giza Eskubideen aldeko Liga (LDH), Harremanetarako Nazioarteko Taldea (NTD) eta Euskal Herriko bakearen aldeko Foro Soziala. Eskuin muturra izan ezik, Frantziako alderdien esparru osoa ordezkaturik egon zen Bake Konferentzian eta nazioarteko pertsona ezagun ugari hartu zuten parte bertan, besteak beste Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohia, Brian Curran bitartekari hegoafrikarra, Michel Tubiana LDHko ohorezko lehendakaria, Gerry Kelly (Sinn Féin) edo Interpoleko idazkari nagusi ohi Raymond Kendall.

**Parisko
Bake
Konferentziak
argi esan du:
Etxerat eta
presoek
bizitzeko ari
duten
jazarpena ez
da bidea**

Bake Konferentziaren amaieran, 110 eragilek izenpetutako agiria plazaratu zen. Aurrekariak gogoratzeaz gain, lau dei nagusi plazaratu zituzten:

1) ETA erakundeari bere armagabetze prozesua burura eramatea eskatzen diogu. Nazioarteko komunikateak, prozesuan inplikatzeko espainiar eta frantziar gobernuak luzatu dien eskariarekin bat egiten dugu, eta armagabetzea era adostu eta kontrolatua burutu dadin, espazio egoki bat planteatu dezaten eskatzen diegu.



2) Zentzuzko epeak errespetatuko lituzkeen askatze prozesu baten baitan, familien onurarako izanen den hurbiltze eta elkartze prozesu baten bidez, euskal presoen dispertsioarekin amaitzeko eskatzen dugu. Halaber, oinarritzko eskubideak errespetatuz, presoek legearen baitako zigorraren malgutzera aplikatzea eta erri direnen askatzea ere aldarrikatzen dugu.

3) Sufrikarioak sortu ez duen gatazkarik ez baitago, berradiskidetzea sustatzeko eta biktima guztien aitortza, kalte-ordaina eta asistentzia eskuratzeko, pisuzko neurriak hartuak izan daitezzen eskatzen dugu.

4) Ukituak diren nazio ezberdinen interesen izenean eta Bakea sustatzeko behar handia dagoenez, espainiar eta frantziar estatuei Euskal Herriko gatazkaren konponbidean zinez inplikatzeko eskatzen diegu.

Etixerat Konferentziari lotu zaio

Etixerat Elkartearen ordezkariak Konferentzian hartu zuen parte parte. Eta Paris «esperantzaren hiriburu» izendatu zuen Bake Konferentziari lotu zaio Elkartea. «Parisko Bake Konferentziari lotzen gara - adierazi zuen Etxeratek-, zeinak entzungorrena egiten jarraitu nahi bai, baina ezin duten bi estaturen gainetik; espainola eta frantsesa, senideek eta euskal preso politikoek bizi duten salbuespenezko egoerarekin bukatu nahi duen gizartea dagoela erakutsi duen».

***Presoen
dispertsioa
amaitzea,
larriki
gaixorik diren
presoak
askatzea,
biktimen
aitortza eta
ETAren
armagabetze
a bururaino
eramatea
azpimarratu
ziren***

Etxeraten aburuz, «Konferentziak agerian utzi du preso politikoek sufritzen duten dispertsioarekin amaitu behar dela eta gatazkaren amaieran parte hartu beharra dutela. Euskal Herriko bakearen inguruko konferentziak argi esan du: Etxerat eta presoek bizitzen ari duten jazarpena ez da bidea».




Jazarpena

14 senide Madrileko epaitegi zentrolean zitatuak

Apirilean Intxaurrondo eta La Salveko komisaldegietan deklaratzeko Guardia Zibilaren bisita jaso zuten euskal preso politikoen 127 senideetatik, hamalauk jaso dute hil honetan Madrilén lekuko gisa deklaratzeko zitazio judiziala, «Mate» deituriko operazioaren eremuan.


Joa den apirilean Intxaurrondo eta La Salveko komisaldegietan deklaratzeko Guardia Zibilaren bisita eta telefono deia jaso zuten 127 senideetatik, 14 senidek jaso dute azkenean zitazio judiziala, kartzelan dauden gure senideek euren defentsarako aukeratu zituzten abokatuen kontrako «Mate» deituriko operazioaren eremuan.



Hil horretan, pertsona hauek euren etxeetan jaso zituzten Guardia Zibilaren bisitak –batzuk kalez jantzita– eta telefono deiak –kasu batzuetan desorduetan–, izutzeko asmo garbiarekin. Orain, 14 dira Madrilerá desplazatuz bertako epaitegi zentrolean eta oraindik ezezaguna zaigun arrazoi batengatik uztailaren 7 eta 8an deklaratzera behartuak izan direnak, eta 12, orain arte aipatu zitazio judizial hori jaso duten senideak. Berariazko deskoordinazio eta inkoherentzia guzti hau euskal preso politikoen senideen aurka eramaten ari den nahasmen estrategia bat da. Inkisizio garaian gaizki deituriko «sorgin» ehiza ekartzen du gogora, gaur beste izen batez dirauena.

**Gure
egoeran
eragiteko
nahia duen
erabateko
jazarpen
orokor baten
aurrean
gaude**

Giza Eskubideen alorrean, Etxeratek lan egiten duen alorrean, jazarpen jarraitua bizitzen ari gara. Gure egoeran eragiteko nahia duen erabateko jazarpen orokor baten aurrean gaude. Hau da 2015eko urte honen joera bilatua: higadura, beldurra eta ziurgabetasuna sortu nahi duten adierazpen, aipamen, ekintza edo salaketez hedabideak maiztasunarekin zipriztindu.



Zentzu horretan, ekainaren 13an egin genuen prentsaurrekoan adierazi genuen bezalaxe, hil honetan ere Parisen ospatu den Bake Konferentziari lotzen gataizkiola berriz azpimarratu behar dugu. Aipatu bilkurak, mahai gainean jarri zituen presoek eta euren senideek pairatzen dugun sufrimendua, eta azkenaldian intentsitate handiz gureganako errepresioa bidea ez dela erantsi.

Ekimenak



Lasterka egin zuten Berriozarren ehunka lagunek euskal preso eta iheslarien eskubideen alde

Euskal errepresaliatu politikoen eskubideak babestu eta aldarrikatzeko helburuarekin Lasterbidean nazio lasterketa egin zuten Berriozarren ekainaren 7an. Lasterketa txikian zein nagusian ehunka lagunek parte hartu zuten. Egun osoko egitaraua prestatua zuten antolatzaileek: 14:30ean herri bazkaria egin zuten 500 bat lagunek, eta indarrak hartu ostean, haur jolasak eta herri kirolak egin zituzten Berriozarko plazan. Gaztetxean, berriz, kontzertuak izan ziren. Goizean

Guardia Zibilak herrian sartzeko jarri zuen kontrolak trabak sortu bai baina ez zuen lortu ekimena gelditzea.

Herri ekimena da Lasterbidean, nazio elkartasun lasterketa bat. Kirolaren esparrutik euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertukoek eskubideen aldeko elkartasun keinua egin nahietik sortu zen Lasterbidean herri ekimena 2013. urtean.

Etiketetik urrun bizi direnak etxera ekartzeko bidea irudikatu nahi dute urtero egiten diren lasterketa herrikoietan. Antolatzaileek argi dute, desagertzeko bokazioarekin jaio zela ekimena eta jaioarazi zuten arrazoiak desagertzearekin batera bukatuko dela, errepresaliatu guztiak etxean izatean hain zuzen. Baina bizirik dauden bitartean herrialdez herrialde mugituko da ekimena.

